

Pucciniren *Turandot*. Nafarroako Orkestra Sinfonikoa.
Zuzendaria: John Mauceri. **Bilboko Operaren Abesbatza.** **Zuzendaria:** Boris Dujin. **Leioa Kantika Korala.** **Zuzendaria:** Basilio Astúlez. **Bakarlariak:** Martina Serafin (sopranoa), Marcello Giordani (tenorea), Davinia Rodríguez (sopranoa). **Eszena Zuzendaria:** Nuria Espert. **Eszenografia:** Ezio Frigerio. **Lekua:** Euskalduna Jauregia. **Data:** maiatzaren 17a.

Titulu ederra, harrera hotza

IRITSI DA OLBEren denboraldiaren azkeneko txanpa, eta, behar den bezala, titulu kuttunenetako batekin. Izan ere, *Turandot* opera hogeita hiru aldiz antzestu da OLBEren historian, hain da erakargarria Puccini-ren obra xarmant hau. Aurtengo azken opera izateaz gain, maiatzaren 17ko saioa elkarteak antolatutako 900.a zen. Beraz, parada honek distira eta arrandia merezi zuen, eta publikoak sutsuki txalotzea ere bai. Baina ez. Ongi garatu zen emanaldia, puntu azpimarragarriak izan ziren, bai, baina hortik ez ginen atera. Eta publikoaren hoztasuna nabaria izan zen.

Puccini-ren fabula eder hau 1926. urtean estreinatu zen, Milango Scala antzokian, Arturo Toscanini-ren batutapean, eta Miguel Fleta tenore ospetsua protagonistaren rolean. Konpositorea obra honekin lanean ari zenean hil zen, beraz ezin izan zuen opera bukatu, eta Franco Alfanok eman zion amaiera hasitako harribitxiari.

Obra zaila da. Adibidez, *Turandot* oso konplikatu da sopranoarentzat. Alde batetik agudo ikaragarriak exijitzen ditu, eta, bestetik, ikutu wagnertarrak dituen paper hau ez da oso erosoa interpretatzeko. Gauza bera esan daiteke gizonezko protagonistari buruz. Zailtasun bokal apartak ditu, eta gutxitan elkartzen dira beharrezko trebezia haiek gainditzeko eta naturaltasuna interpretatzerakoan.

Aldi honetan Martina Serafin sopranoa ongi aritu zen, ahots sendoa erakutsiz, baina, badakizue nola-koa izaten den taula gaineko “misterioa”, ez zen publikoarengana iritsi. Motz geratu zen emozioak transmititzerakoan, eta hori ez da barkatzen. Marcello Giordani erdipurdi hasi zen, aitortu behar da, baina saioa aurrera joan ahala, hoberantz egin zuen, eta “Nessun dorma” hiperfamatua salbatu egin zuen azkeneko sobregudoa txukun emanez.

Ahots polit-polita eta gustu zinez ona eskaini zituen Davinia Rodríguez sopranoak. Eta publikoak saritu egin zituen nolakotasun horiek. Beharbada, abeslari txalotuena izan zen.

Emanaldiaren puntu indartsuak? Abesbatzen aktuzioak, Bilboko Operaren Abesbatzarena eta, batez ere Leioa Kantika Koralararena, beti bezala, puntu-puntuan Basilio Astúlezen zuzendaritzapean. Eta, dudarik gabe, Ezio Frigerio-ren eszenografia, irudimentsu eta onirikoa, eta Nuria Espert-en eszena zuzendaritza. Pertsonaiak, taldeak, ezin hobeki mugitu ziren taula gainean, oso eszena plastikoak lortuz.

Beraz, saio atsegina, baina txalo gutxi. Hurrengo denboraldiaren zain geratzen gara. ■

Montserrrat Auzmendi



Bakailoa

Bartolo
 taberna - jatetxea

Euskal sukaldaritzan eta pintxotan
 aukera zabala

Fermin Calbetón, 38
 Donostia - San Sebastián

© 943 420 279
www.casabartoloetxea.com